

# txintxarri



## Kirolaz gozatzeko eguna

27. Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia eta 22. Korrika Festa jokatuko dituzte igande honetan, hilak 27 / 2-7


TXINTXARRI

# Ges aseguruak

**27.**  **LASARTE-ORIA BAI!!**  
Krosarekin bat!

*Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia*

- ✓ Etxeko aseguruak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Kotxeak
- ✓ Dendak
- ✓ Aurrezkiak
- ✓ Istripuak
- ✓ Enpresak
- ✓ Bizitza aseguruak
- ✓ Eta gehiago!



**Maddi Zaldua**

Ormazabal loradendara sartu orduko, bertako loreen fragantziak edonor harrapatzen duen goxotasun berarekin egin diote, beste behin, harrera Koro Ortegak eta Ramon Ormazabal negozioaren arduradunek TXINTXARRI-ri. Hil hasieran jakinarazi zuen Ostadar SKTk aurtengo 27. Lasarte-Oria Bai Kros Herrikoiko omendua izango zela aipatu komertzioa, eta izendapen hori aitzakia hartuta, kirol probaren atarian eurekin bildu da aldizkaria. "Pozik eta oso eskertuta" agertu dira aintzatespenarekin, eta igandekoa bizitzeko "gogo biziz".

**Nola jaso duzue aurtengo omenduak izatearen berria?**

Oso aitortza ederra izan da. Urteurren urtea da, eta denbora honetan guztian herriaren partetik jasotzen ari garen aitortza guztiari beste bat gehitu zaio. Sekulako ilusioa egin digu. Eskerrak eman nahi dizkiogu Ostadarrri aintzatespen honengatik; pozarren gaude.

Omenduak izango ginela jakinda, 1 zenbakidun dortsala nork eramango zuen zehaztu nahi

# "Herriaren alde gure alea jartzen ahalegindu gara beti"

**ORMAZABAL LORADENDA** 27. LASARTE-ORIA BAI! KROS HERRIKOIKO OMENDUA Ormazabal loradenda izango da abiatzear den 27. Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiko omendua. Julen Ormazabal arduratuko da 1 zenbakidun dortsala soinean lasterka egiteaz

genuen. Biotako inork lasterka egingo ez dugunez, lehen unetik gure seme Juleni proposatu genion; bera izango da dortsal hori soinean eramango duena. Nork

daki zer gertatuko den, baina podiumera igotzeko aukerarik izango balu, are ederragoa izango litzateke [barre eginez ahoskatu ditu Ramonek hitzok; ilusio

hori agertu du. Aipamen horri dagokionez, elkarrizketak aurrera egin ahala, halako batean dendan agertu da Julen; Lasterka egitetik, gurasoei etxera joan

aurreko bisita egitera etorri, eta beraiekin topatu du TXINTXARRI-ko kazetaria. Azken horrek aipatu dio bere aitak, Ramonek, bera igandean podiumean ikustearen ilusioa agertu duela, baina semeak hori ez dela gertatuko adierazi du. Aitaren nahi hori presioa ote den galdetu dio gero Koro amak, eta horri ere ezezkoa eman dio Julenek; adierazi du bera, zentzu horretan lasai joango dela lasterketara, gozatzerat]. **Semeak nola jaso du dortsala berak eramateko proposamena?**

Poz handiz. Urteurren urte honetan aurrera eramandako hitzordu bakoitza poz handiz hartu du Ormazabal familia osoak. Gure ingurukoak, senide eta lagunak ere ilusioz ikusi ditugu eta hori ederra da.

Ospakizun urte honen zikloa osatzen ari da. Ohartu gara familia handi bat garela, herritar eta jende ugari dagoela gurekin, gure ondoan, gure tribua direla eta hori zoragarria da.

**Zer aitortzen dizue omenaldi honek?**

Uste dugu, nolabait esatearren, instituzio bati egiten zaion aitopena dela. Hori ez da Ormazabal loradendari soilik egiten zaion

# Uraitz, S.L.

## Igeltseritza Orokorra



27.  LASARTE-ORIA BAI!!  
Krosarekin bat!

## • BARRUKO BERRIKUNTZAK

• TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILAREKIN. VIPEQ F08 (EMULTSIOZ BOTATAKO ARTELAZKIA) ETA S.A.T.E. SISTEMA

• GREMIOEN KOORDINAKETA KOSTU GEHIGARRIRIK GABE

• BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA DUTXA EXTRALAUARENGATIK EGUN BAKARREAN

**Telefonoa**

**693 05 93 92**  
**943-56 66 40**

[uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com)

[www.uraitz.com](http://www.uraitz.com)

BULEGOA:  
HIPRODOMO ETORB. 10 BEHEA 3  
LASARTE-ORIA



errekonozimendu bat, baizik eta, Ormazabalen hiru belaunaldiei. Saltsero hutsak gara, gogoko dugu herrian, han eta hemen parte hartzea eta Lasarte-Oriari modu batera edo bestera gure ekarpena egitea. Hori adierazi nahi izan dugu urteurreneko lemarekin ere, *100 urte zuekin*, hala izan baita, urte hauetan guztietan, herriaren batera egin dugu bidea. Guri dagokigunez, loradendatik egindako ekarpena jartzen da balioan, baina, gure aurreko belaunaldiek gauza bera egin zuten. Ormazabal familia herriko saltsa askotan dabilen sendi bat da. Uste dugu aitortza honek hori guztia balioan jartzen duela.

Loradendatik beti saiatu izan gara herriaren alde gure aletxoak jartzean, laguntzen, parte hartzen eta kolaboratzen. Guretzat oso garrantzitsua da Lasarte-Oriaren alde aritzea.

**'100 urte zuekin' dio ehungarren urteurrena ospatzeko sortu duzuen lemak. Hori izan da eta gaur egun ere hala izaten jarraitzen du Ormazabaldarren egiteko moduak.**

Bai, gure Lasarte-Oriaren alde. Guretzat oso garrantzitsuak dira



Koro Ortega eta Julen zein Ramon Ormazabal aita-semeak, urteurreneko leloa atzean dutela. TXINTXARRI

horren alde lanean ari diren entitate guztiak.

Herri honek aurrera egiten badu, horiei guztiei esker da. Hiru oinarri nagusi ditu herriak: erakundea, askotariko esparrutako entitate eta eragile guztiak (kirol, kultura, sozial, eta abar),

eta baita ere, noski, merkataria, ostalaritza negozio eta zerbitzuak ere. Guztion artean, eta noski, herritarrak bazter utzi gabe, egiten dugu gure Lasarte-Oria.

Ehun urte hauetan bidea zuekin guztiokin egiten saiatu gara,

eta aurrerantzean ere hala jarraituko dugu. Hau esanda, argitu nahi dugu ez goazela inora, gure bidea ez dela amaitu. Batek baino gehiagok uste du denda ixtera goazela, hala adierazi digute, baina hori ez da horrela.

**Lasarte-Oria Bai! Kros herrikoian parte hartzen ere urte mordo da-ramatzazue.**

27. aldia du aurtengoa krosak, eta horietatik guztietatik, orainxe erabateko ziurtasunez ezin dugu esan, baina hogeitabat izango dira kolaboratzen dugula. Proposatu zigutenetik gaur arte. **Eguna iristear da; krosa abitzeaz da. Nola zaudete? Nolako eguna izango dela aurreikusten duzue?** Egun polita izango da, ziur. Arestian esan bezala, lasterketan seme gazteak ordezkatu du Ormazabal, eta gozatzea nahi genuke.

Esan behar dugu salmenta askoko une batean harrapatzen gaituela urtero krosak, Domusatu Egunaren atarian izan ohi baita, eta hori dela-eta, zoritxarrez, sekula ezin izan dugu hitzorduaz nahi adina gozatu. Igande honetan ere lanean aritu beharko dugu, baina hartuko dugu aintzatespenaz disfrutatzeko tarte ere. Horri lotuta, ez dugu informazio gehiegirik aurreratuko, baina Ormazabal familiaren partetik sorpresaren bat egongo dela esan nahi dugu; lasterketa hasieran izango da.



# LUIS CAR

## autobusak

27.  LASARTE-ORIA BAI!!  
Krosarekin bat!


- Espainiako eta nazioarteko garraio zerbitzuak
- Enpresentzako, ikastetxeentzako... zerbitzuak
- 15 plazako mikrobusak
- 55 plazako autobusak
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autobusak

Uzturre plaza 1, LASARTE-ORIA • Tel./Faxa: 943-36 63 16 • Mugikorra: 629 46 18 97 • [luisarbus62@hotmail.com](mailto:luisarbus62@hotmail.com)



**Lasarte-Oria**  
**Guk Kirola euskar**  
**LASARTE-ORIA**  
**TRATU ON BAT UN BUEN TRATO**

**Laguntzaileak:** DYA, Jalgune, Kukuka, Buruntzapi, Zubietako Herri Batzarra, Ttakun, Sasoeta-Zumaburu ikastetxea, Landaberri ikasto



**DISEINU GRAFIKOA**



**INPRENTA**  
Offset eta Digitala



**DISEINU EDITORIALA**



KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 1-2 pabilioiak · LASARTE - ORIA

943 370 738

info@antza.eus

www.antza.eus



**Krosa ibilbidea**  
**Ipar martxa ibilbidea**

Basauri  
km. 5  
km. 6

**Tren Geltokia** **P** **Aparkalekua**  
**km. 0** **Kilometroak** **Konsigna**  
**i** **Informazioa** **Dutxak**  
**Izen ematea**

**Antolatzailea:**  
**OSTADAR S.K.T.**  
www.ostadarskt.eus

Lasarte-Oria  
Lasarte-Oria - Ayuntamiento  
Lasarte-Oria, Oriarte BHI.

**MICHELIN**  
**Umeak jatzeko gunea**  
**C D**

**BLAS DE LEZO KALEA**

**UJISTIN KALEA**

**GELTOKI KALEA**

**KULTUR-ETXEA**

**HIPODROMO ETORBIDEA**  
**MERCERO PLAZA**  
**Umeak jatzeko gunea**  
**E F**

**OKENDO**  
**Umeak jatzeko gunea**

**SAGARDOTEGI PLAZA**

**KALE NAGUSIA**

TALDEA	URTEA	ORDUA	DISTANTZIA
<b>A</b>	2009/10	12h15'	1.200m
<b>B</b>	2011/12	12h25'	1.200m
<b>C</b>	2019	12h35'	100m
<b>D</b>	2017/18	12h45'	150m
<b>E</b>	2015/16	12h55'	400m
<b>F</b>	2013/14	13h05'	800m

# Jalgi

kafetxe  
antzokia

Geltokia Kalea, 4 behea  
LASARTE-ORIA

# 27.



LASARTE-ORIA BAI!!  
Krosarekin bat!

Zatoz indarrak  
hartzera  
Krosaren ondoren





# Lasarte-Oria Bai! krosa, adin guztietarako festa

Guztia prest du Ostadar SKT elkarteak. Hilaren 27an, igandearekin, Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoa eta Korrika festa izango dira herrian. Korrikalari zein ipar martxako kirolariak izango dira lehenik; eguerdi aldera, herriko gazte eta haurrek hartuko dute erdigunea

## Txintxarri

Hilaren 27an, 10:30ean Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia irteteko *pistola tiroa* entzungo da berriro Geltoki kalean. Aurten ez da patinatzailek izango, beraz, korrikalariak izango dira proba irekiko dutenak. Aurretik dantzariak parte hartzaileei agurra eskainiko diete eta bertan ikusi ahalko dugu Ormazabal lora dendako ordezkari Julen Ormazabal Ortega 1 dortsala jantzita.

Lasterkariak 10 kilometroko bidea egingo dute. Iazko moldaketaren ostean, aurten berriro ohiko ibilbidera itzuliko da Lasarte-Oria Bai! krosa eta Hipodromo ondoko Arrapide pasealekutik egingo dute lasterka parte hartzen duten korrikalariak.

Korrikalarien ostean, ipar martxako kideak hartuko dute irteera marra eta 5 kilometroko ibilbidea egingo dute herrian barrena. Aurten, gainera, Gironako ipar martxa taldeko kideak izango dira lehenak.

Bi lasterketako mapak ikusi daitezke 4.-5. orrialdeetan.

## Festa handia

Helduen lasterketa amaitzean, herriko gazte eta haurren txanda izango da 22. Korrika Festan.



Probako irteeran lasterkariak eta ipar martxako kideak izango dira aurten. TXINTXARRI

Guztira mila parte hartzaile espero dituzte antolatzaileek. Adin-ka sei kategoria ezberdinetan banatuta aterako dira eta 1.200 eta 100 metro arteko ibilbidea egingo dute Geltoki eta Uistin kaleetan barrena. Ikus 5. orrialdeko mapa.

Senide eta lagunak txaloak jaso eta helmuga igaro ostean, guztiek Jalgune elkartearen eskutik opariak jasoko dituzte.

## Dortsala jasotzea

Lasarte-Oria Bai! krosetan webgune bitartez eman duten korrikalariak hilaren 26an eta lasterketa egunean Michelin kirol gunean jasoko dute dortsala zein

kamiseta teknikoak, aurrerago zehaztutako ordutegian.

Eta oraindik dortsala erosi ez duten korrikalariak bi aukera dituzte; Ostadarren webgunean egin –gaur, hilaren 25a, da azken eguna–edo presentzialki Manuel Lekuona Kultur Etxera hurbildu, 17:00etatik 19:30era. Bihar, hilaren 26an, Michelin kirol guneko pilotalekura lekualdatuko da izen emate bulegoa. Ordutegia 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30era izango da. Lasterketa egunean ere, martxan izango da gunea, 09:00etatik 10:00etara.

Azkenik, ez ahaztu 26tik 27rako gauean ordu aldaketa dagoela: 03:00etan 02:00ak izango dira.



Beñat Garcia Negredo 'Fibromialgia abor datzen!' ekimena ekarriko du herrira. TXINTXARRI

## "Ez nuen espero hainbeste pertsonengana iristea"

### BEÑAT GARCIA NEGREDO

'FIBROMIALGIA ABORDATZEN!'-EKO SUSTATZAILEA  
Fibromialgia ikustarazteko kirol erronka ezberdinak eramango ditu aurrera 2024 urtean

urriak 24 - azaroak 14



errigora.eus



Eman bultzada,  
indartu euskara

# Agerreko uzta euskarari puzka



### Nerea Eizagirre

Beñat Garcia Negredo (Lasarte-Oria, 1993) *Fibromialgia* *abordatzen!* ekimena ari da aurrera eramaten gaixotasuna ikustarazteko. Hamai-ka kirol proba egingo ditu 2024. urtean zehar eta Lasarte-Oria Bai! Herri Krosa da horietako bat. Eki-menaren pirata zapia buruan eta elastiko morea soinean etxean bezala lasterka egingo duela onartu du, "5 urterekin Asteasura joan nintzen bizitzera. Erdi Lasarte-Oriakoa naizela esan daiteke". Horrez gain, @beniflow\_ instagram, Tiktok eta youtube kanaletatik, besteak beste, proiektuaren nondik norakoak azaltzen ditu.

### Nola sortu zen ekimenaren idea?

Idea sortu zen behar batetik. Nik ikusten nuen etxean, nire amak du fibromialgia eta behar bat ikusten nuen jendeak gaixotasuna ulertzeko. Nik ikusten nuen nire ama eta fibromialgia zuten pertsonak sentitzen zirela ezikusiak bezala. Ezkutuan zeudela eta arazo askorekin. Behar hori eta nire motibazio pertsonala, kirol erronkak eta gaintzeko helburua, hori dena nahastu eta *Fibromialgia* *abordatzen!* proiektua garatzen hasi nintzen.

### Zertan datza ekimenak?

Asmoa zen aurtan hamabi erronka egitea eta hamahirugarrena amaiera emateko modukoa izatea. Baina proiektuak bere bidea hartu du eta beste proba batzuk ere egin ditut. **Eta guztia hiru fasetan banatu duzu.** Bai, horrela da. Lehen fasean duatloi eta triatloiak eta Gasteizeko Half probarekin amaitu nuen, erronka handia. Egia esan, halakoak izan dira guztiak; aurretik inoiz ez nuelako duatloi edo triatloirik egin.

Bigarren fasea, guztia lasterka. 10 km., 15 km., 21 km. eta azkenik ma-

ratoia. Horietako bat da Lasarte-Oria Bai! krosa. Beti gustuko dut hemen lasterka egitea, herrian bezala sentitzen naiz eta aurreko marka gaintu nahi dut. Gainera, leku ona da gaixotasunari ikusgarritasuna emateko. Ezagutzen zaituzten lekue-tan babes gehiago izaten baitizu.

Eta azkenik, urteari amaiera emateko, Gipuzkoari itzulia, 190 km. Hori bai dela, nire erronka pertsonala. Aspalditik egin nahi nuen horrelako zerbait eta honekin aurrera egitea erabaki dut. Bota nuen harria, entrenatzen ari naiz eta data gerturatu ahala, zelako erronka bota nuen esaten diot buruari. Baina egiteko ondo ikusten naiz. Herri guztietatik pasa eta sortzen ari den mugimendurekin gaixotasunari ikusgarritasun ona emango diogula uste dut.

### Baina kirol arloaz gain, sentsibilizazioa ere lantzen duzue probetan.

Proiektu hau nik sortu nuen, baina Bizi Bide elkartearekin elkarlana egiten dut. Beraiek dira profesionalak eta niregana gerturatzeko diren gaixoak bertara bideratzen ditugu babesarekin eduki dezaten.

Beraz egiten dudana proba bakoi-tzean postu bat jartzen dugu eta horretan informazio banatzen da, bai elkartearena, baita *Fibromialgia* *abordatzen!* proiektuarena. Pirata zapi batzuk, kamisetak, jertseak... ditugu salgai gaixotasunaren ikerketarako, elkarteari lagundu eta proiektuaren kostuak ordaindu ahal izateko.

### Erantzuna ona izaten ari da?

Proiektua hasi nuenetik ez nuen espero hainbestera iriste. Nik etxean nuen egoera azalatu nahi nuen eta egoera berean zeuden pertsoneri lagundu. Baina jendea ugari ari da batzen, asko ari dira bere aletxoak

jartzen. Jendeak proba egiten duenean zapitxoak erosi eta horrekin argazkia ateratzen du. Mezuak bidaltzen ditu, sare sozialetatik jarraitzen gaituzte eta horrek betetzen du. Eta gaixo batek, familia batek edo senide batek eskerrak ematen dizkidanean egindako bideo edo dena delakoarengatik dagoeneko irabazi dugu. Edo ez nekien Bizi Bide elkarte zegoenik esaten dutenean. Helburua gaixotasunari ikusgarritasuna eman eta pertsonaren bati laguntzea zen. Baina ez da bat izaten ari, asko dira. Beraz hobeto.

### Nola lagun dezake jendeak?

Lehenik eta behin gaixotasuna duten pertsonak ulertzen, ez epaitzen eta sinesten. Hori da lehen pausoa.

Bestetik, gaixotasuna duen norbait ezagutzen badu elkartera bidera dezake. Horrez gain, Fibromialgia *abordatzen!* proiektua ere jarrai dezakete. Nire ustez, ekimenak indar pixkat bat ematen die, euskarria da eta familiek ikus dezateke badagoe-la biderik gaixotasunarekin elkarbizitzeko.

Eta ekonomikoki lagundu nahiez gero, ekimeneko zapitxoak edo dena

delakoa erosi. Horrekin guztiak morez bagoaz ikusgarriagoa egingo dugu gaixotasuna.

Horregatik igandean jendea postutik pasatzera, zer egiten dugun ikusi eta lasterketan zehar animatzera gonbidatuko nuke. Zapitxoarekin bada hobe. Horrela jendeak ikus dezake ekimena martxan dagoela eta Lasarte-Oriak fibromialgiarekin bat egiten duela.

Elkarrizketa, osorik,  
[www.txintxarri.eus-en](http://www.txintxarri.eus-en)

# Zatoz Lasarte - Oriara doan aterako zaizu!

gutxieneko erosketa

10€

BILA EZAZU BEREIZGARRI HAU



DOAN



PARKING

MURIAS LOIDIBARREN

**Fibromialgia  
abordatzen!**

Gaixotasunaren ezaugarriak

Fibromialgia gaixotasun neurologiko bat da, eta muskulu-eskeletoko min kronikoa eta hedatua du ezaugarri. Normalean, beste sistema-anitzeko disfuntzio ugariarekin batera agertzen da. Sintoma hauek ditu, besteak beste: neke handia, lo-nahasteak, kontzentrazio- eta oroimen-arazoak, disfuntzio gastrointestinalak, zefale handiak... Kalkulatzen da fibromialgia biztanleriaren %3 eta 4 artean aurkitzen dela; jasaten duten %90 emakumeak dira.

Mattin gizarte abentura

BiziBide Ekartea Asociación

Stern

887

AAA

CEREZO TINCAS

ALTI

VBX



# Memoria, lehengai ere baden altxorra

Emakume Sortzaileen II. Jardunaldia aurrera eramane du Ihtiten elkarteak, 'Sorkuntza memoriatik' izenburupean. Bi alor horiek uztartu dituzten bi proiekturen egileak gonbidatu dituzte, bakoitzak bere egitasmoa aurkeztu eta elkarrekin hitz egiteko gero

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Memoria "partekatu beharreko altxorra" dela uste dute Ihtiten elkarteko kideek, eta, horregatik, gai horren bueltan ardatzu eta aurrera eramane dute Emakume Sortzaileen II. Jardunaldia. Gaitasun hori altxor preziatua izateaz gain sortzerakoan lehengai bikaina ere badela frogatu dute Fanny Alonso eta Maialen Porroy diseinatzaileak eta Nagore Lejarreta argazkilariak. Aurreneko biek *Mujeres del algodón/Kotoiaren emakumeak* egitasmoa ekarri dute Antonio Mercero aretorea, eta, hirugarrenak, *Ibaia ez da toki bat* dokumentala.

Alonsok eta Porroyk *Mujeres del algodón/Kotoiaren Emakumeak* proiektuaren aurkezpen bideoa proiektatu dute. Ikus-entzunezko horretan badago esaldi oso deigarri bat, partaideetako bat izan den Nerea Tudurik botatakoa: "Idatzi, irakurri eta entzun egin behar da, gure amonaren istorioa ez dagoelako historian". Tudurirenak bezalaxe, gerora amona izan diren emakume askok (Alonsorena bera, esaterako) lan egin zuten ehungintza fabriketan. Andoain, Bergara eta Villabona-ko lantegietan aritutakoen lekukotzak jaso dituzte (orden horretan) proiektu horien egileak eta baita erakusketa multidiziplina-



Idoia Garzes (ezkerrean, lehena), hiru gonbidatuak aurkezten. TXINTXARRI

rrak antolatu ere: bideoak, argazkiak, testua, aipatutako fabriketan ekoiztutako izarak... Hori dena, koronabirusaren pandemiak eragindako oztupoak gaindituta, orduan ekin baitzion ekimenari Alonsok, profesional talde batekin.

## Bizirik dagoen izakia

"Urumea ibaia ez da toki bat, ez da ubide bat, ez da orain hemen eta gero han jarri daitekeen ur kanal bat, Urumea ibaia bizirik dagoen izakia da, orain zabaldu eta gero uzkurtu egiten dena, gure birrikak bezala". Horrela

deskribatzen du Nagore Legarreta argazkilariak *Ibaia ez da toki bat* egitasmoa. Lanketa horren emaitzetako bat izan da izen bera duen dokumentala (Bira Produzioak kooperatibako kide Beñat Iturriozek zuzendu du), bi galdera nagusiren bueltan ardatzen dena: Nola ikusten dugu ibaia eta nola ikusten gaitu hark gu?. Legarretaren asmoa izan da erakustea gizakiak ura duten tokiekin dituen harremanak ez direla funtzionalak bakarrik, horietatik harago lotura emozionalak ere badaudela.



Ernaiko kideek Xirimirin egin dute aurkezpen ekitaldia. TXINTXARRI

## Aurtengo erronkak eta mugarrak aurkeztu ditu Ernaik

Gaspe antolakundearen herriko taldeak Xirimirin aletu ditu ikasturte honetako jarduerak eta lan ildoak

### Txintxarri

Aurtengo ikasturteak garrantzi berezia izango du Ernairentzat, eragileak "ekonomikoki kaltetzeko abian den operazioari" aurre egiteko baliatu nahi baitute, eta, horrez gain, independentziaren alde dauden gazteak "geroz eta gehiago" direla erakusteko.

Ernairaren aurkako auziari dagokionez, 2023ko irailean Galder Barbado eta Aitor Zelaiaren espetxeratzeak salatzeke bi ekintza aurrera eramane zituzten, Bilbon eta Gasteizen bana, eta haietan 133 kide identifikatu zituen poliziak. *Mozal legea* ezarrita, ohi baino isun handiagoak jaso zituzten: 600 izaten ohi zena 1.500 edo 2.500 izatera pasatu zen. Denera, 290.500 . Legea modu "neurrigabeen" ezartzea eragileak "ekonomiko ito nahia" dela uste dute, hala, desagerrarazteko. "Ezker independentismoa hegemonia sozial eta politikoa irabazten ari

delako eta gehiago garelako independentziaren aldeko aldarria egiten dugunak". Helegiteak jarri dituzte isunen kontra.

Bestalde, datozen hilabeteetan independentziaren aldeko borroka pertsona gehiago atxikitzeke espazio eta bideak eraikiko dituzte eta independentzia erdigunean jartzen ahaleginduko dira zenbait arlotan: etxebizitza auziari irtenbide propio eta soziala ematea, lan eta lan baldintza duinak izatea, hezkuntza eredu propioa, euskaraz bizitzeko eskubidea bermatzea. "Bide honek emango diguna gazteoi Euskal Herrian duintasunez bizitzeko modua izango da". Amesten duten Lasarte-Oria lortzeko deza- ketenaren gainean gogoeta partekatua egin ere dute. Belaunaldi gazteagoetara iristeko kezka izan da lehen gaia, "gizartetik urrun" ikusten baitituzte; mugimendu sozial guztien arazoa da.

## Isilunea eta kantua Palestinaren aldeko elkartasun keinu gisa

Palestinaren aldeko elkarretaratzea egin dute herritarrek Okendo plazan. Mobilizazio isila izan da nagusiki

### Txintxarri

Gernika-Palestina herri ekimenak deitutako mobilizazioarekin bat egin du Lasarte-Oria Palestinarekin Elkartasuna eragileak. Gauzak horrela, Palestina, Libano sarraskia gelditu! Israelen

kolonialismoari stop! lelopean kontzentrazio bat aurrera eramane du, eta bertara batu dira hainbat herritar.

Ekintza isila izan da nagusiki. Ordu laurdeneko kontzentrazioa egin dute, eta hori amaitzeko,

askatasun aldarri gisa, Mikel Laboaren *Txoriak txori* abestu dute.

Mobilizaziora batu direnei pare bat dei egin dizkiete eragileko kideek. Batetik larunbat honetarako, hilak 26, Lannemezango espetxera egingo den manifestazioan parte hartzeko gonbita; Georges Ibrahim Abdallah preso libanoarraren askatasuna eskatuko dute. Bestetik, igandean, hilaren 27an aurrera eramango den kroseean Palestinaren aldeko banderak erakutsi eta elkartasun keinuak egin ditzaten eskatu dute.



Okendo plazan egin dute Palestinaren aldeko agerraldia herritarrek. TXINTXARRI



# Mozorroa hautatzeko bigarren fasea, martxan

Azaroaren 3ra arteko epea izango dute herritarrek prozesuaren bigarren fasean parte hartzeko. Lehen zatian proposatu diren gaien artean bost aukeratu dituzte konpartsek, eta, orain, horien guztien artean bakarra aukera dezakete lasarteoriarrek

## Txintxarri

Datorren urteko Inauterietan mozorrotzeko gaia aukeratzeko parte hartze prozesuak aurrera jarraitzen du. Bi fase izan ditu aurtengoak gainera.

Lehenengoan, herritarrek Inauterietako gaia proposatzeko aukera izan zuten. Guztira, 252 proposamen jaso ziren; horietatik 79 parte hartze postontzietan jaso ditu udalak, eta 173, berriz, sarean egin dituzte herritarrek. Iritzi horiek guztiak aztertu ondoren, konpartsek bost gai hautatu zituzten, eta horiek dira orain herritarren botoen esku geratuko direnak; hauek dira: Fantasia eta mitologia; Erdi Aroa; Munduan zehar bidaiak edo turistak; Zirkua eta Disney.

Bigarren fasean, aldiz, konpartsek aukeratzeko bost gai horien artean bat hautatu beharko dute herritarrek. Parte hartze prozesu guztietan bezala, bi bide izango dituzte horretarako. Sarean egin nahi duenak, udal webgunearen bidez egin beharko du. Bestela, udalaren parte hartze postontzietan (Emakumeen Zentroa, kultur etxea, Gaztelekua, udaletxeako arkupe zaharrak edo kiroldegia) ere utzi ahaliko dituzte proposamenak. Lehen fasean ez bezala, oraingoan ez dira boto paperak etxez etxe banatuko. Horren ha-



Udal ordezkariak parte hartze prozesuaren bigarren fasea iragartzen. TXINTXARRI

rira, Festak saileko zinegotzi Txus Alonsok adierazi du parte hartzeak baldintza gehigarri bat duela: "Botoa baliagarria izan dadin, NANarekin batera eman beharko da, botoaren benetakotasuna bermatzeko eta irregulartasunak saihesteko".

## Gaztelekuko tailerrak

Azken hiru hilabeteetan Gaztelekuan aurrera eramango diren tailerren berri eman du udalak; 12 eta 30 urte bitarteko gazteentzat diseinatutako programa martxan du. Partaideen "garapen pertsonala,

sormena eta herriko bizitza sozialean parte hartzea sustatzea" helburu duten tailerrak eta jarduerak direla azpimarratu du erakundeak. Horiekin batera, 5+1 programan aritzeko aukera izango dute gazteek. Zenbait tailer martxan dira dagoeneko, baina, beste batzuk datozen aste eta hilabeteetan aurrera eramango dira, hala nola, ping-pong txapelketa mistoa edota alkoholik gabeko koktelak prestatzen ikasteko saioa. Guztiak doakoak dira. Informazio osoa [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) atarian kontsulta daiteke.

## Gazte Topagune Sozialistara joateko deia egin dute

Hitzaldi, erakustaldi, kontzertu eta bestelakoak izango dira hilaren 31tik azaroaren 3ra Altsasun (Nafarroa)

## Txintxarri

Hilaren 31tik azaroaren 3ra Gazte Topagune Sozialista aurrera eramango dute Altsasun (Nafarroa). Ekimen horretara joateko gonbidapena luzatu die herritarrei Lasarte-Oriako GKS alder-

diak. Interesa dutenek atari digital honetan izena eman behar dute: <https://my.weezevent.com/gazte-topagune-sozialista-2024>.

Aipatutako topagune horretan hitzaldi, erakustaldi, emanaldi eta kontzertu ugari aurrera

eramango dituzte. Aurreneko egunean, 12:00etako harrera ekitaldiaren ostean, gai ugari jorratuko dituzte: Europako krisi ekonomikoa, Euskal Herriko gazte eta ikasle mugimenduen historia, euskarazko literatura, emakumeen prekaritate lan munduan, aktualitate politikoa eta Mugimendu Sozialistak dituen erronkak. Horrez gain, *Belarrijana* podcastaren egileek zuzeneko saio bat egingo dute; Antton Telleria eta Asier Kortabarria umoristek,



'Ur bizitan' ikuskizunaren uneetako bat. IURREARA

## Gure herrian egingo dute 'Ur bizitan'-en azken emanaldia

Kultur etxean oholtzaratuko du dantza ikuskizun hori Haatik konpainiak bihar, hilak 26, 20:00etan

## Txintxarri

Biharkoa (hilak 26) egun berezia izango da Haatik konpainiako kideentzat, izan ere, mimoz eta pasioz prestatu eta 2022ko martxoaz geroztik oholtzaratutako *Ur bizitan* dantza ikuskizunaren azken emanaldia egingo dute kultur etxeko auditorioan, 20:00etatik aurrera. Sarrerek 6 euro balio dute eta Kutxabank Sarrerek atari digitalean nahiz kultur etxeko leihatilan eros ditzakete lasarteoriarrek.

*Urak dakarrena, urak darama* artikulua hunkigarria argitaratu zuten Haatiketako kideek euren webgunean, larunbat honetan *Ur bizitan* ikuskizuna azkeneko oholtzaratutako dutela iragartzeko. "Hortxe duzue gonbidapena, emanaldi honetaz gozatzeko aukera izan ez duzuenok, eta baita ikusi duzuenok ere. Zatozte 26an Lasarte-Oriara, azken

aukera izango baita!", nabarmendu dute.

## Ekonomia jasangarriaren aldeko alegoria

Donostiako Txurriategi baserriko familiak kontatutakoak eraman zuen Haatik konpainia sorkuntzaren bidaia hori abiatzera. Bertako kideak "hunkitu, alaitu, liluratu eta haserretu" egin zituen Joxi eta Juanik kontatutakoek, eta, batez ere, zer pentsatua eman, garai horietako gertakarien gaineko jakin-mina piztuta.

Gauzak horrela, pandemia osteko hilabeteetan hasi ziren sortzen, emanaldiak gorpuztu eta 2022ko martxoan *Ur bizitan* estreinatu zuten arte. "Ekonomia jasangarriaren aldeko alegoria bat" dela diote Haatiketako lagunek, "edo agian modu jasangarri batean bizitzeko aukeraz diharduen gogoeta bat".



berri, *Hondamendia* ikuskizunaren emanaldia egingo dute. Bestalde, kirol erakustaldi batzuk programatu dituzte, hala nola, boxeoa, futbitoa edota pilota.

Horrelako ekimenetan ohiko den moduan, musikari ugari emango dituzte kontzertuak Altsasun, hilaren 31tik azaroaren 3ra. Hauek dira batzuk: Sara Zozaya, Eñaut Elorrieta, Ibil Bedi, J Martina, Malakias MX3, Nakar, Muxutruk Erromeria, Rebel Noise, The Clayton, TOC,

Kaparrak, Tatxers, Mirua, Peio Erramouspe, Jaloner, Kalipotxo edota Ander Iraizoz, Mondongo nahiz Gordon DJak. Egitarau osoa [gks.eus](http://gks.eus) atari digitalean kontsulta dezakezue.

# Goizetik iluntzera arteko festa erraldoia

Itzela, aparta, jendetsua, alai... hitz asko erabil daitezke LOZETek antolatutako erraldoien topaketa deskribatzeko. Erdiguneko kaleak hartu ditu talde horrek, Lebiton, Besamotza, Loretope eta Faltzeseko nahiz Caparrosoko konpartsekin batera

## Maitane Aldanondo

Ez ziren 120 izan kazetari honek hilaren 19ko topaketa iragartzeko idatzitako albistean oker esan bezala, hogeitaz besterik ez, baina nahikoa eta soberan izan ziren jai giroa pizteko. Kiliki eta buruhandien laguntza ere izan zuten, interes berezia piztu zuten Villabonakoek, haien inguruan herritar andana biltzeko. Non zeuden jakiteko modu bat Oaintxe In Deu! txarangaren musika edota dultzaina eta danbor doinuak jarraitzea izan zen.

Goizetik bete zituzten kaleak, Semblante Andaluzek prestatutako hamaiketakoarekin indarrak hartu ondoren. Atsobakar auzotik abiatuta, Sasotarantz joan ziren geldialdiak eginez. Andatza plazan egin zuten bat eta zain zituzten herritarrak. Argazki zaparra eta bideo pila egin zituzten irudiei, eta txikiak txundituta jarraitu zuten han egindako dantza. Haien artean bereziki zaleak nortzuk ziren igartzea



Andatza plazatik Tajamarrerantz joan ziren konpartsak eta herritarrak. TXINTXARRI

erraza izan zen, askok eraman baitzituzten erraldoien irudiak. Okendo plaza izan zen topagunearien azken helmuga. Talde bakoitzeko ordezkariak eszenariora deitu zituztek oroitari bana jasotzera. Elkarrekin argazkia egin ondoren, jaitsi, eta erraldoien artean dantza egin zuten. Azkenik, talde argazki erraldoia atera zuten, Loidibarren frontoira bazkaltzera joan aurretik.

Bazkaldu ondoren, herriko konpartsak kalejira egin zuten Buenetxea tabernaraino. Establezimenduak bere 25. urteurrenara lotuta, hainbat jardura burutu zituen egunean zehar eta LOZETen konpartsak taberna aurrean dantza egitea izan zen horietako bat. Azkenik, ilundu zuenean, zezensuzkoaren txanda izan zen; sanpedroetako gauen itxura hartu zuten Kale Nagusiak.



Bazkaldu aurretik talde argazkia atera zuten topaketako partaideek. TXINTXARRI



Buenetxea kanpoaldean izan zen LOZET, kafetegi-tabernaren 25 urteak ospatzen. TXINTXARRI



Zezensuzkoengandik ihesi ibili ziren herritarrak, Kale Nagusian. TXINTXARRI

## Txistulariak, herri kirolak eta erromeria, Euskal Jaian

Hainbaten interesa piztu du egitasmoak, Okendora bertaratutakoak baserritar janzterik lortu ez badute ere

## Maitane Aldanondo

Txistularien dianak zabaldu zuten hilaren 20ko Euskal Jaian parte hartzeko deia, udaleko Kultura sailak aurrenekoz antolatutakoan. Pare bat orduz aritu ziren musikariak kalez kale doinu ezagunak joaz.

Herri kirolen erakustaldia hasi aurretik, Nepaletik etorritako hiru sherpa aurkeztu zituen Ernesto Ezpeleta *Bihurrik*. Dalai Lamaren banda bana jarri zieten lepo inguruan Ainara Elicechea kultur zinegotziari eta Jon Antxordoki Euskara zinegotziari.

Bihurriekin batera, Hodei Ezpeleta, Goizader Beltza, Aratz Beltza eta Enara Beltza aizkolariek egurra moztu zuten; Iparraldeko jokoetan, berriz, Carlos Aretxabaleta eta Ainhoa Larrinoa jardun ziren; Mikel Agirre, Bizkaiko trontza txapelduna, zenbait probatan aritu zen, eta, Elene Ostolaza, harriak jasotzen.

Jaian Jai taldeak itxi zuten eguna. Euskaraz abestu zuten nagusiki nahiz eta bertan zeudenei hitz egitean gaztelaniaz egin gehienetan eta rantxera batzuk hizkuntza horretan abestu.



Ezkerrean, txistularien taldea, diana aurrera eramaten. Eskuinean, herri kirolen erakustaldia. TXINTXARRI



Ezkerrean, hiru sherpak, Antxordoki, Elicechea eta Bihurri. Eskuinean, Jaian Jai taldearen kontzertua. TXINTXARRI





SUSANA BIZARRO

## Giro ederrean elkartu dira

Aurtengoa ez da nolanhiko urtea 1974an jaiotako herritarrentzat, izan ere, 50 urte betetzen ari dira. Horrelako urtemuga biribilak aitzia ederra dira berriz elkartu eta elkarren berri izateko nahiz anekdotak gogoratzeko. Horixe bera egin zuten hogei bat pertsonak

hilaren 19an, Abend garagardotegian bazkaldu bitartean. Hauxe izan zen menua: gula eta ganba entsalada, pelaio erara prestatutako txipiroiak eta otarrainxkak, hasteko; xapoa edo entrekota aukeran; eta postrea. Horren aurretik, Okendo plazan elkartu ziren.



TXINTXARRI

## Flamenkoa zer den erakutsi du

Semblante Andaluz elkarteak eta FARAE Euskal Herriko Andaluziar Etxeen Federazioak antolatuta, flamenko emanaldia egin zuen Maria Rubi artistak hilaren 19an kultur etxean. Alegria, buleria eta tanguillo bidez erakutsi zuen flamenkoa sentimendua, malenkolia eta pena baden

moduan, festa eta bizitasuna ere badela. Kanta artean, musikariek eta bertaratu zirenekin hitz egin zuen, pasarte umoretsuak kontatuz eta zirikatuz. Hori bai, txalo egin edo abesteko eskatu zirenean, kasu egin zioten, nahiz eta lehen unean ez zitzaion nahiko ondo egin zuten iruditu.

## Blues doinuz bete dute Jalgi

Slow Times Blues Band laukote zarautzarrak blues, swing eta rock doinuz bete zuen Jalgi Kafe Antzokia hilaren 18an, ostiralarekin. Lasarteoriatar ugari bertaratu zen Iker Urkiri, Tabea Gerhardt, Carmelo Garcia (*Willy*) eta David Gorospek jotako musika entzutera, eta horietako batzuk dantzara ere animatu ziren emanaldiak iraun bitartean.



TXINTXARRI



NEURE KABUZ

ASIER ODRIOZOLA

## Lasterketa laster

Badator badator!! Adierazpide hori erabiltzen dugun aldiro gustuko dugun zerbaiten etorreraren seinale izaten da. Adinean aurrera eginda ia dena beste distantzia batetik bizi dugu baina gogoan dut umetan, eta gaztetan ere berdin, San Pedro Jaiak hurbil zirenean giroak belarria goxatzen zigula, emititu gabekoa izan arren, guk garbi entzuten genuen iragarpenarekin: badator badator! Gauza bera eguberriekin ere eta modu beretsuan atsegin genituen hitzordu guztiekin.

Oraingoan, urriaren amaierak berekin dakarren Lasarte-Oriako Lasterketa Herrikoa ari zaigu xuxurlaka batean: hemen naiz, hemen naiz!! Berdin dio kirolari izan ala ez, berdin korrika egingo dugun ala ez, kross herrikoiak lasartear asko harrapatzen gaitu, dela izerdia botatzen, dela antolatzen edo dela aitzakia hartu eta festa giroko eguna pasatzen. Gure kuadrillan, esaterako, urteko bazkaririk handienetakoa izaten da lasterketaren egunekoa (babarrun gorriak aurtengoa, sakramentu eta guzti noski) eta gure kasuaren pareko asko dago herriko elkarte eta jatetxetan. Pentsatzen dut etxe askotan ere otordu eta juntadizo bereziak egingo direla. Herri bat herritarrek egiten dute baina baita herritar horiek sortzen, antolatzen eta denboran barrena sendotzen duten ekimenek ere. Lasarte-Orian bat baino gehiago dira ekimen horiek baina egutegiak hala eskatzen duelako, gaur, asteburu honetakoari azpimarra egitea tokatzen da. Eta bide batez, mugatxoren batekin bada ere, antolatzaileei mezutxo bat bidali nahi diet TXINTXARRI-ren bitartez: nire ekarpenxoarekin jarraituko dut ondoko urteetan ere, gazteren batek erreleboa eman arte behintzat. Honenbestez, nire hitza konprometituta geratzen da!



TXINTXARRI

## Garagardo azoka egin dute

Urria garagardoarekin lotura duen hilabetea da, bereziki, Alemanian. Errotutako tradizio horrek mugak gainditu eta garagardo azokak ohiko bilakatu dira beste leku askotan. Hilaren 19an Saustatxo elkarteak zortzigarrenez gauzatu zuen berea, Uzturre plazako egoitzan. Saltxitxak, aza minkorra, ukondoa patata purearekin eta sagar *streuselak* osatu zuten menua, eta edateko, nola ez, garagardoa. Nahi izan zutenek, gainera, Bavierako jantzi tradizionalekin euren burua irudikatu eta argazkia egiteko aukera izan zuten photocallean.

Gaur bertan (hilak 25) antzeko jarduera bat egingo dute Virgen de Guadalupe Extremadura Etxean: afari alemaniarra. Saltxitxak, txerri ukondoa eta postrea jango dituzte, garagardoa edan bitartean.

# Omenaldi hunkigarria pilotalekuan zein elkarteetan

Jose Felix Solano Menaren aitortzan adin ezberdinetako pilota partidak jokatu dituzte Loidibarren pilotalekuan; senior mailakoan ezustekoa izan da. 18na berdintzean bikoteak aldatu eta Goio Solano eta Juan Mari Arteaga atera dira jokatzera

## Txintxarri

2023-2024 denboraldi amaieran utzi zuen pilota eskolako ardura Jose Felix Solano Menak eta hilabete gutxira jaso du hamar-kada luzetan bere gain izan duen ardurari eskertza. Senide, lagun eta elkartearekin lotura duten dozenaka pertsona bertaratu ziren Loidibarrenera omenaldia bertatik bertara ikusteko, hilaren 20an. Lasarte-Oriako Udalak lagundu du ekitaldia eta Agustin Valdivia alkatea, Goizalde Pildain kirol zinegotzia edota Miguel Angel Tolosa Elkarrekin Podemoseko zinegotzia han izan ziren.

Batekin eta besterekin hitz egin zuen omenduak, harmailetan zeudenak agurtu zituen eta erdialdean eseri zen partidak ikustera. Oraintsu arte berarekin pilotan ikasi duten gaztetxoek neurketa izan zen lehena.

Ondoren, nagusien mailakoan, aurrez aurre aritu ziren bikote-



Pilotalekuan ziren guztiak bildu eta Solanorekin argazkia atera zuten. TXINTXARRI

ka: Jon Pello Artetxe eta Aranguren, gorriz; Axier Arteaga eta Aritz Solano, urdinez. Parekatua izan zen partida. Gorriak izan ziren 18ra heltzen lehenak eta hori izan zen ezustekoaren unea.

Bikoteak aldatu zituzten eta Solanok, Goio osabarekin eta Arteagak Juan Mari aitarekin jokatu zuten 22 puntuen artekoa. Harritu egin zen Jose Felix anaia

sartzen ikustean. Goiok bide horretan zuen itxaropenari eutsi zion; are gehiago, 21 puntuan berdinduta zeudela gorriek, Solanotarrek, azken tantoa eta garaipena lortu zuten.

## Irudi bilduma

Neurketa amaitzean, semeak jokalekuaren erdira lagundu zuten Jose Felix, eta Erketzeko

## Aitor Mansok denboraldi amaiera ederra izan du Eivissan

Euskadiko Mendi igoeren txapelkun da eta Espainiako txapelketan hirugarren amaitu du III. mailan

## Txintxarri

Eivissa irlako igoerarekin amaiera paregabea eman dio lehiaketa denboraldiari Aitor Manso herritarrak, Eivissan, Balear Uharteetan.

Ez zuen lehiaketa ongi hasi, ordea; arazo mekanikoak izan zituen, palier bat hautsi zuen gidariak eta hilaren 19an ez zuen denbora onik egiterik izan entrenamendu zein lehen igoeran. Egoera ederki gaititu zuten Lasarte-Oriako gidari eta bere taldeak hurrengo egunean. Bi igoera kronometratuak gehituta 04.25,584ko denbora egin eta probako hirugarren postua eskuratu zuen eta III. mailako bigarren izan zen. "Egun bakarra izan genuen, beraz,



Manso, podiumean. AITOR MANSO

pozarren gaude lortutako emaitzarekin", adierazi du Mansok.

Emaitza horiek, gainera, Espainiako Mendi txapelketako hirugarren postua eman diote. "Azken probara arte borrokan egon gara eta azkenean, podiuma lortu dugu.

Lehen urtea da Espainiako txapelketa serio hartzen duguna eta lortutakoarekin harro gaude. Lehiaketako bost probetan podiumera -bi probatan bigarren sailkatu da eta beste hiruetan, hirugarren- igo gara. Emaitza ederrak dira", nabarmendu du bozkarioz.

Ez hori bakarrik, Joseba Iraolak -probako irabazlea- Urrakiko igoeran parte hartu ez zuenez, Euskadiko txapelketa ere eskuratu du herritarrak. "Iraolak Urrakin ez duenez punturik lortu, gurea da Euskadiko txapelketa orokorra. Horrez gain, 9. kategoriako garaile ere bagara", adierazi du gidariak.

Hori guztia dela eta, urtearen irakurketa ona egiten du herritarrak: "Proba guztietan podiumean izan gara; Euskadiko gure kategorian, gainera, guztiak irabazi ditugu".

Orain atsedean hartuko du Mansok, baina aurki hurrengo denboraldia prestatzen hasiko da herriko gidaria.

## Intzako ordezkari guztiak, garaile

Errendimendu txapelketako lehen jardunaldian zein Ezker Hormako txapelketan Intza KEko pilotariek neurketa guztiak irabazi zituzten.

Loidibarren pilotalekuan hilaren 18an jokaturako neurketetan nagusi izan ziren herriko pilotariak. Infantil 2 mailako Lasak

Añorgako Azurmendi gaititu zuen 2-0 (8-2 eta 8-3), gomazko palako bikoak Beotibar 1

25-13 garaitu zuen eta eskuz binakako Nagusien 3. mailako bikoteak Ezker Hormako final laurdenetara eman zuen pausoa; 22-13 gailendu zitzaion Azkoitia Oteiza 1 bikoteari eta Tolosa 1 izango du aurkari.

Pilota eskolako gainerako kideek ere primeran hasi zuten lehia kanpoan. Honakoak izan ziren emaitzak: Infantil 1. maila, LAPKE 1-2 (2-8, 8-3 eta 2-4) O. Jauregi; Infantil 2. maila, Izurun 0-2 (1-8 eta 1-8) Iparragirre; Arkirun 0-2 (3-8 eta 1-8) Lopez eta Alebin 1. maila, Azkoitia Oteiza 0-2 (1-8 eta 0-8) I. Jauregi.



Lasa infantila, jokoan. TXINTXARRI

zenbait kidek *Agurra* dantzatu zioten. Zirrara nabaritzen hasi zitzaion Solanori aurpegian, bereziki, dantzariak agurtu ondoren Goiok eta Aritzek txapela jantzi, eta bertaraturakoez, zutik, txalo egin zitotenean. Haiengana joan eta erdian jarrita talde argazkia egin zuten. Lehena besterik ez zen izan, horren ondoren, beste asko etorri baitziren.

Loidibarrenekoak amaituta, Intza elkartearen egoitzan jarrai-

tu zuen prestatutako egitarauak. Bertan izan zen Txema Vallesek azaldu zuenez, bapo bazkaldu ondoren, Earra eskolako hiru kidek bertsoak abestu zizkioten, Aritzek eskainitako pala bat oparitu zion, eta horretako batean zintzilikatutako bi argazki estalgabetu zituen Jose Felixek. Batean, bera ageri da aitarekin, eta bestean, Santa Anako pala txapelketan jokoan. Hunkituta eskertu zuen jasotako aitortza.



TXINTXARRI

## Eskualdeko paisaiez gozatuz

Buruntzaldeko Ibilbideen Eguna aurrera eraman zuten hamaseigarrenez hilaren 20an, goizean. 08:00etatik 14:00etara bitartean eskualdean barrena proposatutako bost txangoetako bat egitea erabaki zuten hainbat herritarrek. Lasarte-Oriatik abituta, Urnieta edo Usurbil-Aginaga zituzten aukeran partaideek. Halaber, Andoaindik iritenda, Buruntza zeharkatuta edo gailurra eginda, herrira etortzeko aukera ere bazen. Ostadar Ipar Martxako kideek, ohi bezala, parte hartu zuten Elizatze plazan jarritako kontrol postutik abiatuta. Izena ematean, zigitudun txartel bat eman zieten partaide guztiei eta hiru postutatik pasatu zirenek poltsa bat jaso zuten opari. Horietan ez zen ur botilarik eman aurtan, baina fruitu lehorrak edo platanoa eskaini zizkieten bertaraturakoei.

# Boleibol taldeak lehen fasea hasteko prest

Ostadar Saskibaloia saileko taldeak Gipuzkoako txapelketako aurreko faseari ekingo diote. Senior, jubenil eta infantil mailan talde bana izango ditu talde urdin-beltzak; kadete mailan, aldiz, bi. Euskal Ligan garaipen berria lortu du Asier Acuriolaren taldeak

## Txintxarri

Ostadar Boleiboleko talde guztiak lehiari izango dira hilaren 26tik aurrera. Gipuzkoako txapelketako aurreko fasea hastear da eta Euskal Ligako taldearekin bat egingo dute lehia horretan borrokatuko diren senior, jubenil, kadete zein infantil taldeek. Guztiak prest daude abendura arte euren onena emateko.

Senior zein jubenil taldeak federatu mailan lehiatuko dira. Ostadarreko seniorrak multzo batean egingo du borroka Hernani, Tolobolei, Aidean, Mayumi-Vendetta, Ipar Titanak eta Harresi taldeen aurka.

Jubenilek, aldiz, hirugarren multzoan hasiko dute denboraldia. Hernani 1 eta 2, Aidean eta Usurbil izango dira bere aurkariak.

Eskolarteko mailei dagokionez, Ostadar SKTk hiru talde aurkeztu ditu txapelketara.

Kadete mailan, bi talde urdin-beltz lehiatuko dira eta biek



Euskal Ligako Ostadar-Eskolapios neurketako irudia. TXINTXARRI

bigarren multzoa osatzen dute Usurbilgo zein Hernaniko taldeekin batera.

Eta Aiztondo NKT, Hernani 1 eta 2, Oarso Urdina eta Lizardi birekin batera hirugarren multzoan dago infantil taldea.

Ikus lehen jardunaldiko neurketak 15. orrialdean dagoen kirol agendan.

## Hutsik ez

Euskal Ligako taldeak garaipenaren bidean jarraitzen du. Eskolapios izan zuen aurrez aurre Asier Acuriolaren taldeak hilaren 19an, Maialen Chourraut kiroldegian eta 3-0 amaitu zen lehia.

Talde urdin-beltza nagusi izan zen hasieratik; lehen bi zatitan 25-13 gailendu zen eta hirugarrena irabaztea gehiago kostatu zitzaion arren, 25-21ekoarekin aurkaria gainditu zuen etxeko taldeak.

Bi jardunaldi jokatu ditu Euskal Ligako taldeak eta bietan garaipena eskuratu du. B multzoko buru jarri da D'Elhuyar Logroñorekin eta Bera Bearrekin puntuetan berdinduta, baina herritarrek ez dute oraindik jokorik galdu. Asteburu honetan Donostira egingo du bidaiari taldeak eta lehen postuan mantentzeko borrokatuko du Bera Beraren aurka.



Aurreko denboraldiko proba, Maialen Chourraut kiroldegiko igerilekuan. TXINTXARRI

## Buruntzaldea IKTKo kideen lehen hitzordua, Neguko Liga

Infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak denboraldiari hasiera emango diote Andoainen

### Txintxarri

Buruntzaldea IKTKo infantil, junior eta absolutuek denboraldiari hasiera emango diote hilaren 26an, Allurraldeko kiroldegian, Andoainen; Neguko Ligako lehen jardunaldia jokatuko dute.

Bakarka estilo eta luzera ezberdinetako probei egingo diete aurre igerilariak eta taldeka 4x200m. erreleboa ere jokatuko dute.

Txapelketak lau hitzorduk osatuko dute. Lehena Andoaingoa izango da eta gainerako datak azaroaren 16a, abenduaren 14a eta martxoaren 8a dira.

Taldeko txikiek oraindik aste batzuk itxaron beharko dituzte

uretara jautzi egiteko. Alebinek azaroaren 9an izango dute lehen lehiaketa Maialen Chourraut kiroldegian eta benjaminek hil horretako 23an Usabal kiroldegian, Tolosan.

### Boluntario bila

Abenduaren 14an, beste hitzordu garrantzitsu bati ere egin beharko dio aurre Buruntzaldea IKTK, Distantzia Luzeko Euskal Herriko txapelketa antolatuko du.

Azaroaren 9ko zein abenduaren 14ko probak aurrera eramateko boluntarioak behar ditu igeriketa taldeak. Bere webgunean egin daiteke izena ematea.

## Berezinarekin, goiz berezia

Lasarte-Oria Kirol Elkartek (LOKE) antolatuta Polina Berezina olinpiar gimnastak entrenamendu saioa egin zuen hilaren 20an, Michelingo kirol guneko pilotalekuan.

LOKEko kideez gain, Donostia, Hernani eta Andoaingo 50 bat gimnasta eta euren entrenatzaileak bildu ziren gimnastarekin lan egiteko. Beroketak eta tresna ezberdinekin lan egin ostean, Parisko Olinpiar Jokoetan jantzitako maillotak ikusi eta apaingarrien azalpena jaso zuten gimnastek. Saioa amaitzean gimnastek Berezinarekin argazkia ateratzeko aukera izan zuten, baita bere sinadura eskuratzeko ere.



TXINTXARRI



LOTME

## LOTME, Collarada gailurrean

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko kideak Pirinioetako Collarada gailurrera igo ziren hilaren 19an eta 20an. Huescako Canfranc herrira (Aragoi) egin zuten bidaiari eta 20an goizean goiz atera ziren gailurra egiteko asmoz. Mendian gora, egunsenti ederraz gozatu zutela adierazi dute. IP aintzira ondoan atsedendia egin eta indarrak berreskuratuta maldan gora jarraitu zuten. Goia egin ostean, Villanua aldera jaitsi ziren. Bidean elurra zapaltzeko aukera ere izan zuten. Hurrengo irteera antolatzen hasi dira dagoeneko, ohitura bilakatu den Txindoki mendira igoera. Hitzordua abenduaren 22an izango da.

## ZORION AGURRAK



**Liher**  
Iritsi dek hire urtebetze eguna!! Urteaskuan potto!! Jarraitu haizen bezelakoa izaten!! Muxu potolo bat gu denon partez!



**Noa**  
Zorionak Noa! 8 muxu erraldoi aitaxo, amatxo eta Albaren partetik. Asko maite zaitugu!

## AZOKA TXIKIA

## ETXEBIZITZA

## SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

## ERRENTAN EMAN

Bi neska gazte gara eta pisukide baten bila gabiltza. Ebea Zabale-tako auzoan dago. 200 euro dira logelaren prezioa gehi gastuak aparte. Interesatu bazaude idatzi edo deitu telefono honetara: 663 93 51 76.

## ERRENTAN HARTU

Apartamentu txiki bat alokatu nahi dut, epe luzerako. Goizez deitu: 687 05 82 12.

## GARAJEA

## ALOKATU

Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsaldez deitu hona: 650 63 65 88.

## LANA

## ESKARIA

Batxilergoko Bigarren mailako ikaslea naiz eta edozein irakasgaietako klase partikularrak emateko prest nago. Harremanetarako, 678 17 15 99.

## BESTELAKOAK

## EMAN

Pitbull arrazako txakurra oparitzen da. 9 urte ditu eta baserrian

ohitua dago; oso ona da. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.


## SALEROSKETA

Helduentzako trikizikloa saltzen dut. Interesdunek 630 85 57 96 telefono zenbakira dei dezatela.

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

## ORDU ALDAKETA

Neguko ordutegia estreinatuko dugu igandean, hilaren 27an: goizeko hiruretan, ordu biak izango dira.



## ESKUTITZA

## Lasarte Oriako Euskal Jaia: balorazio positiboa?

## BOROBILEAN ELKARTEA

Borobilean, beste ezeren gaintetik, pentsamendua dugu bokazioa; horregatik, hain zuzen, hausnarketa gune moduan planteatu genuen. Errealitateak, egunerokoak, eragiten dizkigun kezka eta zalantzen aurrean elkarren artean gogoeta egiteko espazioa. Galderak egitea da, beraz, gure funtzioa. Erantzun egokienaren bila planteatzen diren galderak. Galdera berriak sortuko dizkiguten erantzunak, ziurrenik. Komunitatea buruan edukita beti, Lasarte-Oriako komunitatearen eraikuntzan gure ekarpena egitea baita gure helburua.

Komunitatea mamitzeko bide horretan, herria eraikitze gakoetaz egin genuengogoeta Borobilean Elkar-teak ikasturteari hasiera emateko irailean antolatutako tertulia irekian. 16 elkarteren kideak eta parte hartu zuten herritarrak bat etorri ziren herriaren eraikuntzan elkarren arteko komunikazioak, saretzeak eta lankidetzak duten garrantzian. Eta Udalak, herritarrak ordezkatzeko gaituen erakundea izanik, mimoz zaindu beharko lituzke balio horiek. Elkar-te askoren kideen artean, hala ere, ezinegona eta kezka handiak

somatu genituen Udalarekiko harremanetan gabezi asko dagoelako. Komunikazio falta da hutsune horietako bat, modu nabarmenean areagotu dena azken garaioetan.

Ezin dugu ezkutatu tertulia horretan hainbat elkar-teetako kideek luzatutako kezka burura etorri zaizkigula aurreko asteburuan "ospatutako" Euskal Jaian ikusitakoa eta gero. Ez kezka bakarrik. Antolaketaren ardura Ttakuni kentzeak, egitarauan eta prestaketetan urteetan aritu izan diren elkar-teekin hitzik egin gabe erabakia hartzeak, inorekin kontatu gabe Euskal Jaia burutzeak... samina eragin digu euskaltzale askori. Horrek eraginda, eta gure bokazioari jarraituz, ezin diogu uko

egin gure buruari galderak egiteari. Ez al da "ospakizun" triste eta etsigarria izan? Euskal Jaia izanda? Jaia ere izan da? Posible al da, gure ustez iruzurtia den, "valoración positiva" batenatzean dena ezkutatu? Ez al da autokritikarako ordua? Ez al da balorazio partekatua garaia? Elkar-te, entzun, hitzegin, proposatu, hausnartu, eztabaidatu, erabaki, ardurak partekatu... elkar-teen lana baloratzea eta errespetatzea ez al daaskoz eraginkorragoa eta eraikitzaileagoa? Herria eraiki, komunitatea osatu... ez al daelkar-teekin egiten? Zorionez Lasarte-Oriak lankidetzara horretarako prest diren herritarrak eta eragileak ditu. Egin dezagun gogoeta! Egin dezagun bidea!

Hurrengo **txintxarri** paperean

urriaren 31n, ostegunean argitaratuko dugu

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

## Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkar-tea  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

## Administraria

Nerea Garziarena.

## Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo  
Gonzalez, Maddi Zaldua eta  
Maitane Aldanondo.

## Publizitatea

Irati Zatarain.

## Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux  
Artetxe, Maitane Rebe, Julen  
Basterra, Lierni Rekondo eta  
Aizpea Amas.

## Banatzaileak:

Egoitz Epelde, Ander Hazas,  
Aimar Hernandez, Nora  
Navarro, Xuban Urdalaita,  
Nikola Iraola eta Iñigo  
Ibarburu.

## Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

## Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)

WhatsApp: 646 82 44 66

publizitatea@ttakun.eus

## Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4

Tel.: 943-37 14 48 (104)

WhatsApp: 688 68 35 10

txintxarri@ttakun.eus

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.300 ale

## BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

## DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eu

## OSTIRALA 25

### LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak hilabeteko bigarren saioa egingo du: *Volveréis* filma proiektatuko du. Sarrerak 6 euro balio dute.

*Kultur etxeko auditorioa, 20:00etan.*

### LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Hilabete honetako Azken Ostirala aurrera eramango du Sare Herritarrek: euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen alde zeharkatuko dituzte erdiguneko kaleak. Manifestazioaren ostean Etxerat elkartearekin adostutako komunikatua irakurriko dute antolatzaileek.

*Elizate plazatik Okendo plazara, 20:00etatik aurrera.*

### LASARTE-ORIA Gastronomia

Virgen de Guadalupe Extremadura Etxeko kideek afari alemaniarra egingo dute: saltxitxak, ukondoa eta postrea jango dituzte garagardoa edan bitartean.

*Extremadura Etxea, 21:00etan.*



### LASARTE-ORIA Ospakizuna

Udazken festa ospatuko dute Zabaletako auzotarrek: altxorraren bila, bertsolariaren saioa eta pintxo-potea izango dituzte. 17:30ean hasiko dira ospakizunak eta "sorpresa berezi bat" egongo dela aurreratu dute.

*Bihar, hilak 26, larunbatarekin, Zabaleta auzoan, 17:30etik aurrera.*

## LARUNBATA 26

### LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Lasarte-Oria Osasun Publikoaren Alde plataformak (LOOPA) elkarretaratze bat egingo du *Inon ez*

*medikurik gabe! ¡Ningun@ lasarteoriatarra sin medic@!* lelopean. Ekimen horren bidez "lasarteoriatarren oinarrizko osasun eskubideen defentsan hasitako dinamikarekin" jarraituko dute. *Okendo plaza, 12:00etan.*

### LASARTE-ORIA Ospakizuna

Zabaletako auzotarrek udazken festa aurrera eramango dute. Egitarauko ekimenez gain "sorpresa berezi bat" egongo dela iragarri dute antolatzaileek.

**17:30ean**, haur eta gaztetxoentzako altxorraren bila.

**18:00etan**, bertsolariak: Amaia Agirre, Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze.

**Ondoren**, pintxo-potea. *Zabaleta auzoa, 17:30ean.*

### LASARTE-ORIA Dantza

Haatik konpainiak *Ur bizitan* dantza ikuskizunaren azken zuzeneko emanaldia egingo du. Dantza garaikidea, zuzeneko musika eta hitza uztartzen ditu Aiert Beobidek sortu eta zuzentzen duen konpainiaren lanak; Donostiako baserritar familia baten kontakizunearan oinarrituta dago. Sarrerak 6 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan nahiz Kutxabank Sarrerak atari digitalean eros ditzakete herritarrek.

*Kultur etxeko auditorioa, 20:00etan.*



## IGANDEA 27

### LASARTE-ORIA Zinema

*Transformers One* emango dute, haurrentzat. Sarrerak, 4 eurotan. *Kultur etxea, 17:00etan.*

### LASARTE-ORIA Zinema

*El 47* emango dute, helduentzat. Sarrerak, 6 eurotan. *Kultur etxea, 19:30ean.*

## ASTEAZKENA 30

### LASARTE-ORIA Literatura

Maria Garcia Laderok istorio ederrak kontatuko dizkiete 3 eta 5 urte arteko umeei *Ipuinaren ordua* saioan. Izen ematea, Udal Liburutegian.

*Udal Liburutegia, 17:30ean.*

## OSTEGUNA 31

### LASARTE-ORIA Aurkezpena

*Tokiko demokrazia bidegurutzean* liburua aurkeztuko du Oreki fundazioak, Lasarte-Oriako Udalarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean. Erakundeetako ordezkariak eta ikerketa egitasmoko zenbait partaidek parte hartuko dute. *Antonio Mercero aretoa, 18:00etan.*

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### OHOREZKO ERREGIONALA

##### Ostadar SKT - Elgoibar CD

Larunbata. 16:45. Michelin kirol gunean.

#### GORENGO MAILA

##### Ostadar SKT - Orioko FT

Larunbata. 18:40. Michelin kirol gunea.

#### ERREGIONAL I. MAILA

##### Hernani CD B - Texas Lasartearra CF

Larunbata. 16:00. Zubipe, Hernanin.

##### Ast. Mundarro FKE B - Ostadar SKT

Larunbata. 18:00. Zarkumendegi, Astigarragan.

#### OHOREZKO J. M.

##### Kostkas CD - Ostadar SKT

Larunbata. 18:15. Matigoxotegi, Donostian.

#### JUBENILEN GORENGO MAILA

##### Lagun Onak CD B - Ostadar SKT

Larunbata. 17:30. Garmendipe, Azpeitian.

#### JUBENILEN I. MAILA

##### Ostadar SKT - Mundaiz SDC

Larunbata. 14:50. Michelin kirol gunea.

##### Danara KE C - Texas Lasartearra CF

Larunbata. 15:30. Elbarrena, Zizurkilan.

##### Texas Lasartearra CF B - Martutene KE B

Igandea. 10:50. Michelin kirol gunean.

#### OHOREZKO K. M.

##### Ostadar SKT - Martutene KE

Larunbata. 13:05. Michelin kirol gunean.

#### KADETEEN I. MAILA

##### Texas Lasartearra CF - Ostadar SKT

Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.

#### ARETO FUTBOLA

##### I. MAILA

##### Eguzki Arkupe Rehabilitaciones

##### - Idiazabal BaiReformas

Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

##### III. MAILA

##### Egintza KE B - Eguzki ISU Leihok

Larunbata. 15:30. Abraham Olano kirol., Anoetan.

#### GAZTEEN MAILA

##### AF Anbo Pesc. Ferreres - Eguzki Bod. Ayesa

Larunbata. 13:30. Pasai Donibane kiroldegian.

#### KADETEEN MAILA

##### Eguzki Goxokis Goxua - Laskorain KE A

Igandea. 09:15. Michelin kirol gunean.

#### SASKIBALOA

##### II. MAILA

##### Az Casa de La Rioja - Ostadar SKT

Igandea. 12:00. Benta Berri kirol., Donostian.

##### III. MAILA

##### CD Internacional Mons - Ostadar SKT

Larunbata. 16:00. Mons kirol., Donostian.

##### J. ERRENDIMENDUA ZILARRA

##### Ostadar SKT - SaskiAxular

Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.

#### J. PARTAIDETZA

##### Ostadar SKT - Bera Bera Ulla

Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

#### K. ERRENDIMENDU URREA

##### Ostadar SKT - Carr. Amute Hondarrabia

Igandea. 11:30. Maialen Chourraut kirol.

#### K. ERRENDIMENDUA ZILARRA

##### Ostadar SKT - Arri BKL Txindoki

Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.

#### KADETE PARTAIDETZA

##### Ostadar SKT - Bera Bera Albistur

Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

#### BOLEIBOLA

##### EUSKAL LIGA, II. MAILA

##### Bera Bera - Ostadar SKT

Larunbata. 16:45. Manteo kirol., Donostian.

#### SENIOR MAILA, LEHEN FASEA

##### Ostadar SKT - Tolobolei

Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

#### JUBENIL MAILA, LEHEN FASEA

##### Ostadar SKT - Aidean

Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

#### KADETE MAILA, LEHEN FASEA

##### Ostadar SKT A - Hernani KE 2

Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

#### Hernani KE 1 - Ostadar SKT B

Larunbata. 10:00. Hernaniko kiroldegian.

#### INFANTIL MAILA, LEHEN FASEA

##### Hernani KE 1 - Ostadar SKT

Larunbata. 10:00. Hernaniko kiroldegian.

#### PILOTA

##### ESKUJ BINAKA, NAGUSIAK, 3. MAILA

##### Tolosa 1 - Intza KE

Igandea. 10:00. (4. partida) Beotibar pil., Tolosan.

#### ERRENDIMENDU TX., INF. 2. MAILA

##### Intza KE (Maiz) - Hernani

Ostirala. 18:30. (1. partida) Loidibarren pil.

##### Intza KE (Iparragirre) - Anorga

Ostirala. 18:30. (2. partida) Loidibarren pil.

##### Intza KE (Lopez) - Mundarro

Ostirala. 18:30. (4. partida) Loidibarren pil.

##### Mundarro - Intza KE (Lasa)

Ostirala. 19:30. (1. partida) Txominefea pil., Astigarragan.

#### ERRENDIMENDU TX., ALE. I. MAILA

##### Intza KE (Jauregi) - Behar Zana

Ostirala. 18:30. (3. partida) Loidibarren pil.

#### IGERIKETA

##### NEGUKO LIGA

**Buruntzaldea IKTo infantil, junior eta absolutuek Neguko Ligari hasiera emango diote.** Larunbata. 16:00. Allurralde kirol., Andoainan.

### ERRUGBIA

#### OHOREZKO B MAILA

##### Hernani - Gipuzkoa Sortzen

Igandea. 12:00. Larndare, Hernanin.

#### EUSKAL LIGA, II. MAILA

##### Iruña - Gipuzkoa Sortzen

Igandea. 10:30. UPNA, Iruñean.

#### 14 URTEZ AZPIKOAK

##### Zarautz Beltzak RT taldeko gazteek topaketa dute.

Larunbata. 11:30. Kote Olaizola miniest., Donostian.

#### XAKEA

#### GIPUZKOAKO TXAPELKETA

**Taula Xake Klubeko kideak eta Lasarte-Oriako xake jokalariek maila ezberdinetako Gipuzkoako txapelketako hirugarren jardunaldia lehiatuko dute.** Larunbata eta igandea. Eibar / Irun.

#### LASTERKETAK

#### LASARTE-ORIA BAI! KROSA

**Ostadar SKTk antolatuta Lasarte-Oria Bai! krosa eta Korrika Festa jokatuko dira.** Igandea. 10:30/12:15. Lasarte-Orian.

# BIDEO LAGUNAK

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK



ZERBITZU TEKNIKO PROPIOA



Finantziakoa neurira

Garraio zerbitzua

Erabilitako gailuen jasotzea

Aholkularitza espezializatua

Preziorik onena

37. URTEURRENA



Cadena Estrella Azul

ELECTRODOMÉSTICOS

**BLACK FRIDAY**  
Aurreratu zaitzez egunera!



Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34



**aldaz**  
horts klinikak · clínicas dentales

943-36 63 77

[www.dentalaldaz.com](http://www.dentalaldaz.com)

26 LASARTE-ORIA BAI!!  
Krossarekin bat!



RPS 181/19

Lasarte-Oria  
Ola kalea, 10

Tolosa  
San Frantzisko, 39

Elgoibar  
San Bartolome, 22

# LEHIAKETA

## Lasarte-Oriako Toponimia

### 20 GALDERA + ERRONKA

URRIAK  
14-20  
(10 galdera)



URRIAK  
21-27  
(10 galdera)



URRIAK 28  
AZAROAK 3  
Erronka



## 2 SARI

2 PERTSONENTZAT  
LANDETXE BATEAN  
GAU BAT

2 PERTSONENTZAT  
MENU BEREZIA



txintxarri